

NORANTZA

BORJA AGINAGALDE IRARGI-KO ARGURADUNA

«Badator gunean 200.000 dokumentutik gora biltzen dira»

Duela bi urte sortu zen «Badator» gune elektronikoa, Euskal Autonomi Erkidegoko artxibo historikoen gune elektronikoa. Orain artean, 72 artxibategi publiko zein pribatuetako 200.000tik gora dokumentu bildu ditu.

orrialde kopurua eta abar. Bertan biltzen diren dokumentuen bitartez, idatziak, jabeagoak, administrazioetan gordetzen diren hainbat informazio agertzen dira. Datu hauek eskaldunak nola bizi ziren ikusteko irizpideak ematen dituzte. Izan ere, «Badator» gunean diren dokumentuen artean zaharrena 1164. urtekoa da, eta, guztira, 200.000 dokumentutik gora biltzen ditu bere baitan.

egunen batean, Euskal Herri osoko artxibo historikoak jasotzen dituen zentru bakar bat izatea li-zake, zentru bakar hori bertualki izanik ere. Bestalde, atzerriko hainbat tokitan dauden artxibategiak ere bisitatu ditugu, munduko edozein tokitan euskaldunoi buruz dauden dokumentu guztiak eskuratzeko gustauko baliatzaiguke.

Euskaldunen bizimodua nolakoa zen jakiterako garalan, beste herrialdeetako artxiboen falta izateak ez al du Euskal Herriaren ikuspegi partzial bat ematen?

Esku artean ditugun dokumentuak oso zaharrak dira eta, dudarik gabe, orduko mugak eta orangoak ez dira berak. Ildo horretan, guztiak izateak ikuspegi orokorrago bat ematen badu ere, ditugun hauek ideia orokor bat eman dezaketela pentsatzen dut.

Zein da artxibo historikoen Euskal Herriaren etorkizunaren izan dezaketen garrantzia?

Dokumentu hauek euskaldunen historia gordeta dagoen segurtasuna ematen dute eta, hauen bitartez, berau nolakoa izan den ikusteko aukera. Izan ere, historia ez da iturririk edota inolako dokumentu eta daturik gabe osatu, gero bakoitzak informazio hori bere gogora erabiltzen badu ere. Bestalde, esku artean ditugun artxiboez gaur egungo hainbat gestio planteatzen dituzte eta, etorkizunari begira garrantzia gordetzen dute. Artxibo historikoen gabe, egungo gauza asko ezin dira behar bezala ulertu. Gure asmoa, dokumentuen % 100 lortu arte lanean jarraitzea da.

AMAIA MUNDIÑANO

Zer nolako informazioa eskura daiteke aipatu gunean?

Artxibo mota guztietara joa da: publikoak, udal artxibategiak, pribatuak. Artxibo bakoitzaren inventarioa egin eta, sailkapen baten arabera, artxibo horretan dauden informazio, espediente guztiak inportatuak azaltzen dira: egileak, data, espedienteen gaia.

«Badator» gune elektronikoa bere alorrean aitzindari dela diote artxibategi bertual honen biltzaizaleek. Honetaz eta gune elektronikoa honen xedeaz ari ga Borka Aginagalderekin.

Nola eta zergatik sortzen da «Badator» gune elektronikoa?

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko artxibo zerbitzuan lan egiten dugu eta duela 13 urte hasi ginen Euskal Herri mailan zeuden edo, hobe esanda, euskaldunon zer ikusia zuten dokumentuen bilaketa eta eskuratzeko egiten. Artxiboz artxiboz joan eta dokumentuen egoraz jabetu ondoren, plangintza bat egin genuen. Lehen helburua artxibo historiko horiek guztiak zuzentzea izango zen sailkapen sistema orokor baten bitartez sailkatzea zen. Honek, noski, informatizazio orokor bat eskatzen zuen. Zentzu horretan, plangintza egin baino lehen ez bagenekien ere, aurrerapen teknologikoen izugarriko laguntza eskaini digute. Izan ere, Internetek informazio eta artxibo horiek guztiak edonorentzat eskuragarriak izateko aukera zuzena, erraza eta azkarra eskaini digu. Hor kokatzen da, hain zuzen ere, «Badator».



Kaiboa Corbellina



Zirtoka
Txillardegí
Galeuzca

Harrigarria da Aznar-en izendapena aipatzerakoan, Pujol-en bazezko borobila oso jende gutxiak azpimarratzea. Hala ere, eta ene ustez, hauxe da datu garrantzitsua bat (oso berria ez bada ere): Convergencia i Unió partidua espainiar Estatuaren pilare nagusi bihurtu da, baita PPrena ere.

1922an Maciák «Estat Catalá» alderdia sortu zuenean, Catalunya zen espainiar eskudindaren lokamutsu etengabea. Eta, alderantziz, kataluniar abertzaleetarako euskaldunon arreta-gune eta eredu.

Eli Gallastegik, horretara, he-mengo errejionalismo merkeak gaituditu nahiz «Jagi-Jagi»-ren oinarriak jarri zituenen, bi erreferentzia zituen: Irlanda, batetik, eta gorantzia zetuoren Catalunya Askatua, bestetik. Eta 1931ko Apirilaren 14an Barzelonan Maciák «República Catalana» aldarrikatu zuenean, espainiar nazionalistak situ zituenean; berarek «shay que fusilar a Maciá» prentsa bidez esan arazi arte.

Aldatu egin dira gauzak gozotik. 1931an mehatxu ezin larriagoa zen «Galeuzca» proiektua. Kataluniarren aldetik batez ere. Gaur, berriz, eta zoritxarez, gure «Gudari»-k nekez begiratuko luké Barzelona aldera argi bila. Eta guk geuk ere, gero eta nekezago, egia esan, hizkuntzaren alorrean ez bada.

CIU blokea ez da, zorionez, Catalunya abertzale osoa. Hor daude Pujol onartzen ez duten katalunista guztiak (oso zatirik badiadude ere), eta ERC partidua bereziki.

Baina non gelditu da Franco baino lehenago azkar zegoen giro hura, eta espainiar senditzen ez diren herrien arteko ananttasuna? Zer esan nahi du gaur «Galeuzca» hitzak? Zerik aldatu du Catalunya horren salkoiti azken urte hauetan?

Erantzuna nabarmena da. Baina ez dut nik hemen emango. Argienek berehala ulertuko naute.

Aitzindariak



Aselek + Koxemari